Idiazabalgo
Udala

Idiazabalgo Udala
Zk./ Nº 2024/326
Data / Fecha 2024/06/19
Dekretua / Decreto

# ALKATE DEKRETUA

**IÑAKI ALBERDI IPARRAGUIRRE jaunak, Idiazabalgo Alkate udalburuak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluak eta apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeetako Legearen 25. 7 artikuluaren xedatutakoari jarraituz,**

## IKUSIRIK

Idiazabalgo Udaleko 2021-2024 epealdirako dirulaguntzen plan estrategikoan landa guneetako biztanleetzat herri barruan bidaiatzeko taxi zerbitzua finantzatzeko dirulaguntza lerroa (6.lerroa) jasotzen dela.

2024ko aurrekontuetan badela partida bat aurreikusita honetarako

**481.02.412.00 2024 Landa Mugi programa 1.000 Euro**

## I. Eskumena

Dirulaguntza, transferentzia eta diru emate araubidea erregulatzeko ordenantza orokorraren
10. artikuluak honakoa dio:

"**Deialdia onartuko du Alkate-udalburuak** eta han bertan sartuko dira diru laguntzak emateko oinarriak eta iragarri egingo da. Eskaerak aurkezteko epea eta modua deialdian zehaztuko dira".

## II. Araudia

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskal Tokiko Erakundeei buruzko Legea
- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

## EBAZTEN DUT:

**LEHENENGOA**. 2024. Urterako landa mugi programari dagokion dirulaguntzaren deialdia onartzea. (1.eranskina)

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

**BIGARRENA.** 1.000€ko gastua onartzea 1.481.02.412.00 aurrekontu aplikazioari egotzia.

**HIRUGARRENA**. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko tabloian argitaratzea agintzea.

**LAUGARRENA**. Deialdia Diru laguntzen Datu-Base Nazionalari igortzea, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikuluak xedatutakoari jarraituz.

**BOSGARRENA**. Kontabilitate-unitateari horren berri ematea.

**SEIGARRENA**.-Hurrengo Ohiko Osoko Bilkuran Dekretu honen berri ematea.

| | |
|---|---|
| Alkatea | Nire aurrean |
| Iñaki Alberdi Iparragirre | Idazkari-kontuhartzailea |
| | Garazi Arraibi Larrea |

1.go ERANSKINA

***Landa-mugi programarako diru-laguntzak eta horien deialdi publikoa arautzeko oinarriak.***

*1. artikulua. Diru-laguntzaren xedea.*

Oinarri hauen xedea da garraio publikoko zerbitzu erregularra erabiltzerik ez duten landa guneetako biztanleei herri barruan bidaiatzeko (beraien etxebizitzatik erdigunera eta alderantziz) taxia erabiltzeko diru-laguntzen emakida arautzea.

*2. artikulua. Aurrekontu kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Dirulaguntza hauek onartzeko dagoen kreditu erabilgarria 1.000 eurokoa da. Gastu hau 2024 ekitaldiko aurrekontuko 481.02.412.00 partidatik ordainduko da.

***Bases reguladoras de las subvenciones y convocatoria pública referente al programa de Landa-mugi.***

*Artículo 1. Objeto de la subvención.*

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de subvenciones para el uso de taxi dentro del municipio (desde sus domicilios hasta el casco urbano y viceversa) por las personas residentes en zonas rurales que no puedan utilizar el servicio de transporte público regular de viajeros.

*Artículo 2. Crédito presupuestario y cuantía de la subvención.*

El crédito disponible para otorgar estas subvenciones es de 1.000 euros. Este gasto se abonará desde la partida 481.02.412.00 del presupuesto del ejercicio 2024.

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

Diru-laguntza hauetarako diru-izendapena epemuga iritsi baino lehen bukatuko balitz, agortutako unean bertan udaleko web orrian eta udal iragarki taulan argitaratutako iragarkiaren bitartez horren berri emango da eta programa bukatutzat eman eta ez da diru-laguntza gehiago emango.

*3. artikulua. Onuradunak.*

Eskaera egin dezakete eta onuradun izan daitezke jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak eskaera aurkezten duten egunean:

a) Idiazabalgo landa barreiatuan kokatutako etxebizitzaren batean erroldatuta egotea eta bertan bizitzea.

b) Auto propiorik ez izatea.

c) 12 eta 25 urte artekoa izatea, edo, 25 urtetik gorako adina izanda, autonomiarik ez izatea. Azken egoera hau egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira, eta egiaztagiri horietan zehaztu beharko da autonomia falta horren iraupena (12-18 urte bitarteko onuradunek, gurasoen edo tutoreen baimena beharko dute).

*d)* 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Lege Orokorrak, 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean sartuta ez egotea.

e) Udalarekiko betebehar fiskaletan egunean egotea.

*4 artikulua. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

4.1. Eskabide-orriak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunean zabalduko da, eta irekita egongo da partidan dagoen dirua agortu arte edo, gehienez ere, urte batez deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Aurkeztuko den eskabide-orria I. eranskinean agertzen dena izango da. Berau Idiazabalgo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da. Bestalde baita, eskabide-orriak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aurreikusten dituen gainerako bideen

En caso de agotarse la consignación presupuestaria de esta subvención antes de su vencimiento, se informará de ello en el momento en que se agote mediante un anuncio que se publicará en la página web del ayuntamiento y en el tablón de anuncios, dándose por concluido el programa y no concediendo más subvenciones.

*Artículo 3. Personas beneficiarias.*

Podrán presentar solicitud y resultar beneficiarias las personas físicas que en el momento de presentar la solicitud cumplan las condiciones que se detallan a continuación:

a) Estar empadronada y residir en Idiazabal, en alguna de las viviendas situadas en el diseminado rural del municipio.

b) No disponer de vehículo propio.

c) Tener entre 12 y 25 años o, siendo mayor de 25 años, no tener autonomía. Ésta última situación deberá acreditarse documentalmente mediante certificados en los que deberá constar la duración de esa falta de autonomía (aquellos beneficiarios que tengan entre 12 y 18 años, deberán contar con la autorización de sus padres-madres o tutores/as legales).

d) No estar incursas en ninguna de las circunstancias impeditivas recogidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

e) Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales para con el ayuntamiento.

*Artículo 4. Solicitudes y documentación a presentar.*

4.1 El plazo de presentación de solicitudes se abrirá el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y permanecerá abierto hasta agotarse la consignación presupuestaria o, como máximo, durante un año desde la publicación de la convocatoria.

La solicitud se presentará, conforme a la instancia recogida en el anexo I, en el Registro General del Ayuntamiento de Idiazabal, pudiendo también presentarse a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

bitartez.

4.2 Eskabide-orriak, eskatzaileak edo ordezkariak behar den moduan beteta eta sinatuta aurkeztuko dira honako agiri hauekin batera:

a) Eskabide-orria sinatzen duenaren NANaren fotokopia.

b) Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen egiaztagiriak. Ziurtagiri hauen ordez, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena (I. eranskina) aurkeztu ahal izango du, Diru-Laguntzen Lege Orokorraren araudia onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikuluak aurreikusten duenaren arabera.

c) Eskatzailea 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Lege Orokorrak, 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean sartuta ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskineko eredua erabilita.

d) Zinpeko deklarazioa xede bera finantzatzeko beste entitate edo erakunde batzuei eskatutako edo eskatzea aurreikusi diren diru-laguntzak zeintzuk diren zehaztuz, hau da: erakundearen izena eta jasotako diru-laguntza edo eskatutakoa adieraziz. Honetarako I. eranskineko eredua erabiliko da.

e) Kasua bada, autonomiarik ez dutela egiaztatzen duen egiaztagiria 3. artikuluan jasotako ezaugarriekin.

f) Biztanleen erroldan erroldatuta dagoela, kotxe propiorik ez duela eta udalarekiko betebehar fiskaletan egunean dagoela udalak ofizioz aztertuko du.

4.3 Aurkeztutako eskabide-orrian edo dokumentazioan zerbait falta bada edo zuzendu daitekeen akatsen bat badago, landa-garapen Sailak jakinarazpen bat bidaliko dio eskatzaileari 10 (hamar) egun baliodun emanez falta diren agiriak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko. Eta jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

Eskaerak aztertu ondoren edo geroago, edozein momentutan, Udalak interesdunari

4.2. Las instancias, debidamente cumplimentadas y firmadas por la solicitante, deberán acompañarse de la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI de la persona solicitante.

b) Certificaciones de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones fiscales y de la Seguridad Social. Alternativamente, la persona solicitante podrá sustituir la presentación de estos certificados por una declaración responsable al efecto (anexo I), de acuerdo con lo previsto en el artículo 24.4 del Real Decreto 887/2006, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones (LGS).

c) Declaración responsable, conforme al modelo del anexo I, de no hallarse la persona solicitante incursa en ninguna de las prohibiciones recogidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, Ley General de Subvenciones.

d) Declaración jurada de las solicitudes de subvención de la misma naturaleza realizadas o que se prevea realizar a otras entidades o instituciones, especificando nombre de la institución y subvención recibida o solicitada. A tal efecto, se utilizará el modelo que figura como anexo I.

e) En su caso, certificación acreditativa de falta de autonomía conforme a las características señaladas en el artículo 3.

f) El ayuntamiento comprobará de oficio su empadronamiento en el censo de habitantes, el hecho de no contar con vehículo propio y que se encuentre al corriente de sus obligaciones fiscales para con el ayuntamiento.

4.3. En el caso de que la solicitud presentada o la documentación aportada sean incompletas o adolezcan de cualquier otro defecto subsanable, el Área de desarrollo rural enviará una notificación a la persona solicitante a fin de que en el plazo de 10 (diez) días hábiles proceda a su subsanación o presente los documentos necesarios, indicándole que, en caso contrario, se le tendrá por desistido en su solicitud.

A la vista del examen de las solicitudes o en cualquier momento posterior, el Ayuntamiento

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

eskatu ahal izango dio 4.2 atalean aurreikusi ez den dokumentazio osagarria aurkeztea, ikusteko bidezkoa den diru- laguntzaren onartzea, mantentzea edo ukatzea.

4.4 Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena ematen dio dirulaguntza bideratuko duen Sailari honetarako:

Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela egiaztatzeko, Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzari informazioa eskatuta. Baimena eman ezean, interesdunak egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu eskaerarekin batera.

*5. artikulua. Diruz lagunduko den xedea.*

Diruz lagunduko diren bidaiek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Udalerri barruan egiten diren bidaiak izatea, erabiltzailearen etxebizitzatik erdigunera eta alderantziz.

— Bidaia horiek Idiazabalgo taxi lizentzia izan eta Idiazabalgo Udalarekin programa honetarako hitzarmena sinatu duten taxilariekin egitea.

— Horretarako, diru-laguntzaren eskubidea onartzen denean emango den txartel identifikagarrian deia egiteko edota whatsapp-a bidaltzeko telefono zenbakia jasoko da.

— Bidaiak egitea deialdia argitaratzen den hurrengo egunetik hasita urte bateko epean, ez baldin bada aurrez agortu dirulaguntza hauetarako aurreikusita zegoen dirua.

— Bidaiak honako egun eta orduen barruan egitea (abuztuan ezik):

— Astelehenetik ostiralera: 7:30 - 20:00.

— Larunbatetan: 09:00 - 14:00.

— Igande eta jai-egunetan egindako bidaiak ez dira diruz lagunduko, ezta abuztuan egindako bidaiak ere.

*6. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.*

6.1. Diru-laguntza bidaia bakoitzaren zenbatekoaren %50ekoa izango da. Beraz, erabiltzaileak beste %50a ordaindu beharko dio taxilariari.

6.2. Joan-etorria egiten denean bi bidaiatzat hartuko da.

podrá solicitar a la persona interesada que presente otra documentación adicional no prevista en el apartado 4.2 a fin de determinar la procedencia del reconocimiento de la subvención, su mantenimiento o revocación.

4.4. La presentación de la solicitud conlleva la aceptación incondicional del contenido de las presentes bases, así como, especialmente, la autorización al Área municipal tramitadora para:

Acceder y obtener los datos acreditativos de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social. Si no se concede autorización al Ayuntamiento en la solicitud, se deberán presentar los certificados junto con la solicitud de subvención.

*Artículo 5. Objeto subvencionable.*

Los viajes subvencionables deberán reunir los siguientes requisitos:

— Deberán realizarse dentro del municipio, desde la vivienda de la persona usuaria hasta el casco urbano o viceversa.

— Realizar estos trayectos con taxistas que tengan su licencia de taxi en Idiazabal y hayan firmado con el Ayuntamiento de Idiazabal el convenio para este programa.

— En este sentido, en la tarjeta identificativa que se entregará en el momento de reconocimiento del derecho a la subvención, figurará el número de teléfono a donde llamar o enviar un whatsapp.

— Realizar los desplazamientos en el plazo de un año a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria, salvo que con anterioridad se haya agotado la cuantía consignada para estas subvenciones.

— Realizar los desplazamientos en los días y horarios siguientes (excepto agosto):

— De lunes a viernes: 7:30 - 20:00.

— Sábados: 09:00 - 14:00.

— No se subvencionarán los viajes realizados en domingos y festivos, ni los realizados en el mes de agosto.

*Artículo 6. Cuantía de las subvenciones.*

6.1. La subvención será del 50% del importe de cada viaje. Por lo tanto, la persona usuaria deberá abonar el otro 50% al taxista.

6.2. Los viajes de ida y vuelta se considerarán como dos viajes.

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

6.3. Bidaia bakoitzeko diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.5 eurokoa izango da.

6.4. Artikulu honetan aurreikusitakoaren barruan onuradunei dagokien diru-laguntzaren zenbatekoa, beti ere, baldintzatuta geratuko da diru-izendapenari.

*7. artikulua. Instrukzioa eta Erabakia.*

7.1. Landa-garapen Sailak egiaztatuko du interesdunak eskatutako dokumentazio guztia ekarri duela eta laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen dituela.

Hori eginda, baldintzak betetzen baditu, Landa-mugi txartela prestatuko du eta eskatzaileari emango dio eta pertsona horren datuak diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten pertsonen zerrendan sartuko ditu.

Oinarri hauetan jasotako baldintzak ez baditu betetzen ordea, dagokion erabaki-proposamena egingo dio landa-garapen batzordeari.

Landa-garapen batzordeari dagokio diru-laguntza hauen kontrola. Beraz, landa-garapen sailak emandako txartelen berri emango dio batzordeari, eta era berean, diru-laguntzarik ez dagokien kasuetan horren gaineko erabaki-proposamena luzatuko dio.

Txartel hori derrigorrean erakutsi beharko dio taxi-gidariari egindako bidaiaren ibilbidearen diru-laguntza jaso ahal izateko.

7.2. Landa-Mugi txartela titularrak baino ezin du erabili. Behar den moduan ez erabiltzea, diru-laguntza baliogabetzeko arrazoia izango da. Behar ez bezala erabiltzeagatik txartela kendu ahal izango da, 6 hilabeteko epe batez, eta behin eta berriz bidegabe erabiliz gero txartela indargabetu ahal izango da.

Txartela indargabetzen bada, pertsona titularrak ezin izango du txartela berriro eskatu urtebeteko epean, indargabetzen den unetik hara zenbaturik epe hori.

7.3. Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da. Gehieneko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik gabe edo txartelik eman gabe, interesdunek ulertu dezakete eskaera, administrazio-isilbidez, atzera bota dela.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio eta erabakiaren kontra

6.3. La cuantía maxima de la subvención por viaje será de 10.5 euros.

6.4. La cuantía de la subvención que corresponda a las personas beneficiarias según lo dispuesto en este artículo queda en todo caso supeditada a la existencia de consignación económica

*Artículo 7. Instrucción y resolución.*

7.1. El Área de desarrollo rural comprobará que el interesado ha presentado toda la documentación requerida y que cumple las condiciones para percibir la subvención.

Tras ello, en caso de que cumpla las condiciones, se expedirá la tarjeta de Landa-mugi, que le será entregada a la persona solicitante, y sus datos serán incluidos en el listado acreditativo de personas con derecho a percibir esta ayuda.

En caso de que no cumpla las condiciones recogidas en estas bases, se formulará la propuesta correspondiente a la Comisión de desarrollo rural.

El control de las presentes subvenciones corresponde a la Comisión de desarrollo rural. Por lo tanto, el Área de desarrollo rural informará a dicha comisión de las tarjetas emitidas y realizará propuesta de resolución incluso en el caso de que no corresponda subvención.

Será requisito indispensable presentar la tarjeta al taxista para que el trayecto pueda ser subvencionable.

7.2. La tarjeta Landa-Mugi es personal e intransferible, únicamente puede ser utilizada por su titular. Su utilización indebida podrá dar lugar a la retirada temporal de la tarjeta por un periodo de tiempo de 6 meses, y en caso de utilización indebida reiterada podrá dar lugar a la cancelación de la tarjeta. En caso de cancelación, la persona titular no podrá solicitar nuevamente la tarjeta en el plazo de 1 año desde el momento de la cancelación.

7.3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento será de dos meses. El vencimiento de este plazo máximo sin haberse notificado la resolución o sin haber expedido la tarjeta legitima a los interesados para entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

La resolución adoptada pondrá fin a la vía administrativa, y contra la misma cabrá interponer

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

Udaleko alkatearen aurrean berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko aukera egongo da, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko Donostiako Administrazioarekiko auzien epaitegian. Guzti hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluak eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

*8. artikulua. Diru-laguntzaren kudeaketa.*

8.1 Diru-laguntza Idiazabalgo Udalarekin hitzarmena sinatu duten taxi-gidarien lankidetzarekin kudeatuko da, honetarako sinatutako hitzarmenaren arabera eta oinarri hauetan jasotako berezitasunen kaltetan gabe.

8.2 Landa-Mugi txartela eskuratuta, bidaia egiteko interesa duen pertsonak, gutxienez, 3 ordu lehenago deitu edo whatsapp-a bidali beharko du txartelean jasoko den telefonora.

8.3 Bidaia hasi aurretik, taxilariak egiaztatu beharko du erabiltzaileak eta honek eskatutako zerbitzuak Landa-Mugi programaren diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituela, eta horretarako honako pauso hauek eman beharko ditu, erabiltzaileak bete beharko dituenak diru-laguntza jaso ahal izateko:

— Landa-Mugi txartela: Erabiltzaileari Landa-Mugi txartela eskatuko dio, eta indarrean dagoela egiaztatu beharko du.

— Nortasuna egiaztatzea: Egiaztatuko du zerbitzua eskatu duen pertsona Landa-Mugi txartelaren titularra dela.

— Ibilbidea: Egiaztatuko du erabiltzaileak eskatutako ibilbidea 5.artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Zehaztutako aktuazio guztiak egin ondoren, taxilariak egindako ibilbide bakoitzeko formulario bat bete beharko du, taxi-gidariak eta erabiltzaileak sinatuko dutena (hiru ale).

8.4 Bidaia amaitutakoan, erabiltzaileak zerbitzuaren kostuaren %50a ordainduko dio taxi-gidariari. Ondoren taxi-gidariak aurreko puntuan aipatutako formularioaren ale bat eta faktura erabiltzaileari emango dio.

*9. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa.*

9.1 Onuradunentzat diru-laguntza dena taxilariari ordainduko zaio zuzenean endosu-hartzaile gisa. Nolanahi ere, onartutako konturako ordainketen ondorioz taxi-gidariei ordaindutako

recurso potestativo de reposición ante el alcalde de este ayuntamiento, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián. Todo ello, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, y la Ley 29/1998 de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

*Artículo 8. Gestión de la subvención.*

8.1 La gestión de la subvención se realizará en colaboración con los taxistas conveniados, conforme al convenio suscrito al efecto con el Ayuntamiento de Idiazabal, y sin perjuicio de las particularidades que se recogen en las presentes bases.

8.2 Una vez recibida la tarjeta Landa-Mugi, la persona interesada en realizar un viaje deberá llamar o enviar un whatsapp, al menos, 3 horas antes al teléfono que se indica en la tarjeta.

8.3 Antes de iniciar el viaje, el taxista deberá verificar que tanto la persona usuaria como el servicio solicitado cumplen con los requisitos para acogerse a las ayudas del programa Landa-Mugi, y a tal efecto realizará las siguientes actuaciones, que deberán ser facilitadas en todo caso por la persona usuaria para poder acogerse a la subvención:

— Tarjeta Landa-Mugi: Solicitará a la persona usuaria la exhibición de la tarjeta Landa-Mugi, verificando la vigencia de la misma.

— Comprobación de identidad: Comprobará que la persona que solicita el servicio es efectivamente la titular de la tarjeta Landa-Mugi.

— Trayecto: Verificará que el trayecto solicitado cumple con los requisitos establecidos en el artículo 5.

Una vez realizadas todas las actuaciones señaladas, el taxista cumplimentará, por cada trayecto, un formulario que deberá ser firmado por triplicado por el taxista y por la persona usuaria.

8.4. Al terminar el viaje, la persona usuaria abonará al taxista el 50% del coste del servicio. A continuación, el taxista entregará a la persona usuaria la factura y un ejemplar del formulario citado en el punto anterior.

*Artículo 9. Pago de la subvención.*

9.1. El pago de la subvención que corresponde a las personas beneficiarias se hará efectivo mediante su abono al taxista como endosatario. En cualquier caso, el importe

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

zenbatekoa erabiltzaileari aitortutako eta ordaindutako diru-laguntzatzat hartuko da.

abonado a los taxistas con motivo de los pagos a cuenta aceptados tendrá la consideración de subvención reconocida y abonada a la persona usuaria.

9.2 Udalak, bere datuetan oinarrituta, aldiro, onuradunei Landa-Mugi programaren barruan bere izenean kontabilizatu diren bidaien eta zenbatekoen informazioa bidaliko die. Informazio honen helburua onuradun guztiei egindako bidaien eta diru-laguntzaren gaineko jarraipena eta kontrola ahalbidetzea da.

9.2. El ayuntamiento comunicará periódicamente a las personas beneficiarias los viajes e importes que, en ejecución del programa Landa-Mugi, les hayan sido imputados en el proceso de gestión de la subvención, según los datos disponibles hasta ese momento. Esta comunicación tendrá como objetivo permitir a las personas usuarias el seguimiento y control sobre la subvención reconocida.

*10. artikulua. Diru-laguntzaren zuriketa.*

Diru-laguntza zurituko da hitzarmena sinatu duten taxilarien bitartez. Horretarako, taxilariek zerbitzuaren formularioak aurkeztu beharko dituzte, zerbitzuaren erabiltzaileei emandako fakturen kopiekin batera.

Aurrekoaren kaltetan barik, diru-laguntza justifikatzerakoan zalantza edo intzidentziaren bat sortuko balitz, zenbatekoari buruz ari garela edo baita diru-laguntza dagokion ala ez, Udalak taxi-gidariari egoera argitzeko izango den dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio.

Berdin erabiltzaileari, zerbitzua ematerakoan taxilariarekin arazoren bat sortu bada Landa-Mugi programa erabili ahal duen ala ez argitzeko eta bidaiaren kostu osoa ordaindu behar izan duen kasuan (kontura ordaindu barik). Kasu honetan, taxilariari eskatu ahal izango dio eta ondoren Udalean aurkeztu dagokion faktura, udal zerbitzu teknikoek egiazta dezaten diru-laguntzarako baldintzak betetzen dituen ala ez. Diru-laguntza ordaintzea onartzen den kasuetan, zenbatekoa, zuzenean, erabiltzaileari ordainduko zaio, honek erabilitako Landa-Mugi zerbituaren kostua ordaindu badu

Artikulu honetan eta gainerakoetan jasotakoak ez du inolako eraginik Landa-Mugi zerbitzua erabiltzeagatik erabiltzaileek faktura eskatzeko duten eskubidean, taxi-gidaria behartuta baitago kontsumitzaile eta erabiltzaileen gaineko legeriarekin eta aplikagarria den gainerakoarekin bat faktura ematera.

*Artículo 10. Justificación de la subvención.*

La justificación de la subvención se realizará a través de los taxistas conveniados. Para ello, éstos presentarán los formularios del servicio, junto con copias de las facturas entregadas a las personas usuarias del servicio.

Sin perjuicio de lo anterior, en caso de discrepancia o incidencia relativa a la justificación de la subvención que pudiese afectar a la cuantía o, incluso, la procedencia del reconocimiento de la subvención a la persona usuari/a, el ayuntamiento podrá requerir al taxista la presentación de la documentación acreditativa que proceda.

E igualmente a la persona usuaria, en caso de que en la prestación del servicio hubiese existido alguna discrepancia con el taxista sobre su derecho a acogerse al programa Landa-Mugi y le hubiese requerido el abono íntegro del coste (sin pago a cuenta). En este caso, podrá solicitar la factura al taxista y después presentarla en el ayuntamiento, a efectos de que los servicios técnicos municipales verifiquen el cumplimiento o no de los requisitos para acogerse a la subvención. Si efectivamente procediese el abono de la subvención, el importe se abonará directamente a la persona usuaria, siempre que ésta hubiese satisfecho el importe íntegro del servicio de Landa-Mugi correspondiente.

Lo dispuesto en este y restantes artículos no afecta en modo alguno al derecho de las personas usuarias a solicitar al taxista la factura correspondiente por cada servicio de Landa-Mugi, en los términos establecidos por la legislación en materia de consumidores y personas usuarias, de obligaciones de facturación y demás que resulte de aplicación.

*11. artikulua. Bateragarritasuna beste diru-*

*Artículo 11. Compatibilidad con otras*

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

*laguntza batzuekin.*

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu bera lortzeko jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

Hala ere, diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan, beste diru-laguntza batzuekin batera zein bakarrik, diruz lagunduko den zerbitzuaren kostua baino handiagoa.

*12. artikulua. Diru-laguntzaren aldaketa.*

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

*13. artikulua. Bermeak.*

Diru-laguntza emateko akordio konkretuek besterik xedatu ezean, ez da beharrezkotzat jotzen bermeak exijitzea Udalaren alde, emandako laguntzengatik.

*14. artikulua. Diru-laguntzaren publizitatea (onuradunak).*

Udalak programa amaieran argitaratutako du diru-laguntza jaso duten pertsonen zerrenda kopuruekin udaleko iragarki taulan.

*15. artikulua. Itzulketa.*

Oinarri eta deialdi hauetan berariaz jasotako kasuetan emango dira diru-laguntza honengatik eskuratutako zenbatekoen itzulketak, eta edonola ere, justifikatzeko agiririk aurkeztu ez denean, edo behar den moduan justifikatu edo behar beste agiri aurkeztu ez denean. Osorik bete ez denean, itzulpena ez-betetzeari dagokion zenbatekora mugatuko da. Berdin egingo da gain finantzaketa dagoela egiaztatzen bada diru-laguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, itzulpena Diru-Laguntzen Lege Orokorrak, hau garatzen duen Erregelamenduak, Udal Aurrekontuko Arauak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen duten moduan egingo da.

*16. artikulua. Araudi aplikagarria.*

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorrak, legea garatzen duen Erregelamenduak, Udal Aurrekontuaren Arauak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

*subvenciones.*

La subvención otorgada por el ayuntamiento es compatible con cualquier otra subvención recibida para el mismo fin.

No obstante, la cuantía de la subvención en ningún caso podrá superar, ni aisladamente ni en concurrencia con otras subvenciones, el coste del servicio subvencionado.

*Artículo 12. Modificación de la subvención.*

La alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, las ayudas recibidas en concurrencia de otras entidades públicas o privadas pueden suponer la modificación de la resolución de concesión.

*Artículo 13. Garantías.*

Salvo que los acuerdos específicos dispongan lo contrario, no se considera necesaria la exigencia de garantías a favor del ayuntamiento, respecto a las subvenciones concedidas.

*Artículo 14. Publicidad de la subvención (personas beneficiarias).*

El ayuntamiento, al finalizar el programa, publicará en el tablón de anuncios la relación de personas y las subvenciones percibidas por las mismas.

*Artículo 15. Reintegro.*

El reintegro de las cantidades recibidas por esta subvención procederá en los casos expresamente recogidos en las presentes bases y convocatoria y, en todo caso, cuando exista incorrecta justificación, justificación deficiente o insuficiente de la aplicación dada a los fondos recibidos. En caso de cumplimiento parcial, el reintegro se limitará a la cuantía a que se refiera el incumplimiento. Se procederá de igual manera en caso de que, a resultas de la documentación justificativa, se concluya la existencia de sobrefinanciación.

Sin perjuicio de lo anterior, el reintegro procederá en los supuestos y términos recogidos en la Ley General de Subvenciones, Reglamento de desarrollo, Norma Presupuestaria Municipal y demás normativa aplicable.

*Artículo 16. Régimen aplicable.*

En todo lo no expresamente previsto en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 38/2003 General de Subvención, su Reglamento de desarrollo, la normativa presupuestaria municipal y demás legislación aplicable.

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

Idiazabalgo Udala

Idiazabal, 2024ko martxoak 4.—Alkatea, Iñaki Alberdi Iparragirre.

Idiazabal, a 4 de marzo de 2024. El alcalde, Iñaki Alberdi Iparragirre.

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

# I ERANSKINA / ANEXO I

## LANDA GARAPEN SAILEKO DIRU LAGUNTZAK 2023
SOLICITUD SUBVENCIONES DEL DPTO. DE DESARROLLO RURAL 2023

### 1. ONURADUNAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA O ENTIDAD BENEFICIARIA

| **LEHEN ABIZENA**/ PRIMER APELLIDO | **BIGARREN ABIZENA**/ SEGUNDO APELLIDO | **IZENA** /NOMBRE | **NAN OIFK /** DNIO NIF |
|---|---|---|---|
| | | | |

| **SEXUA**/SEXO | **JAKINARAZPENAK JASOTZEKO HELBIDEA** / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN | **JAIOTZE EGUNA** / F. nacimiento |
|---|---|---|
| | | |

| **HERRIA** / POBLACIÓN | **P.K.**/ C.P. | **TELEFONO** | **MEZUETARAKO TF**: / AVISOS EN EL TLF : |
|---|---|---|---|
| | | | |

| **POSTA ELEKTRONIKOA** / CORREO ELECTRÓNICO | **HARREMANETARAKO HIZKUNTZA**/IDIOMA COMUNICACIÓN |
|---|---|
| | |

### 2. ORDEZKARIAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE

| **LEHEN ABIZENA**/ PRIMER APELLIDO | **BIGARREN ABIZENA**/ SEGUNDO APELLIDO | **IZENA** /NOMBRE | **NAN OIFK /** DNIO NIF |
|---|---|---|---|
| | | | |

| **SEXUA**/SEXO | **JAKINARAZPENAK JASOTZEKO HELBIDEA** / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN |
|---|---|
| | |

| **HERRIA** / POBLACIÓN | **P.K.**/ C.P. | **TELEFONO** | **MEZUETARAKO TF**: / AVISOS EN EL TLF : |
|---|---|---|---|
| | | | |

| **POSTA ELEKTRONIKOA** / CORREO ELECTRÓNICO | **HARREMANETARAKO HIZKUNTZA**/IDIOMA COMUNICACIÓN |
|---|---|
| | |

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

Idiazabalgo
Udala

## 3. ESKATZEN DU / SOLICITA

☐ **Landa-Mugi programarako diru-laguntza /** Subvención para el programa Landa-Mugi

## 4. AURKEZTEN DIREN AGIRIAK / DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

☐ **Kasua bada, autonomiarik ez dutela egiaztatzen duen egiaztagiria.** / En su caso, certificación acreditativa de falta de autonomía.

☐ **I eranskina.** / Anexo I.

## 5. BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU / DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

☐ **Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta diru-laguntzak emateko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela**

☐ Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Plan Estratégico de Subvenciones

☐ **Xede bera finantzatzeko beste entitate edo erakunde batzuei eskatutako edo eskatzea aurreikusi diren diru-laguntzak zeintzuk diren zehaztu, hau da: erakundearen izena eta jasotako diru-laguntza edo eskatutakoa adieraziz**

Erakundearen izena:

Eskatu edo jasotako diru-laguntzaren izena:

☐ Solicitudes de subvención de la misma naturaleza realizadas o que se prevea realizar a otras entidades o instituciones, especificando nombre de la institución y subvención recibida o solicitada:

Nombre de la entidad:

Nombre de la ayuda solicitada o que se va a solicitar:

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

## 6. ESKATZAILEARI INFORMATZEN ZAIO / SE LE INFORMA AL SOLICITANTE

Idiazabalgo Udalak dirulaguntza oinarrietan ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen bitartekotzako plataformaren eta beste administrazio batzuen bidez. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

*El Ayuntamiento de Idiazabal va a verificar los requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones., NISAE. La entidad solicitante tendrá opción a oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.*

POLIZI ZUZENDARITZA NAGUSIA

*DIRECCION GENRAL DE POLICIA*

Nortasun datuen kontsulta.
TOKI OGASUNAK

*Consulta y verificación de datos de identidad*
*HACIENDAS FORALES*

Zerga betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

*Consulta de estar al corriente con las obligaciones tributarias.*

GIZARTE SEGURANTZA

*SEGURIDAD SOCIAL*

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

*Consulta de estar al corriente con las obligaciones con la Seguridad Social.*

Idiazabal Udalak ofizioz egingo du Idiazabalgo Udalarekiko zorren datuei buruzko kontsulta.

*El Ayuntamiento de Idiazabal realizará de oficio la consulta de datos de deudas con el Ayuntamiento de Idiazabal.*

Eskatzailak Udalaren egiaztapenren **AURKA** egiten badu gero, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekikoak beteta dituzuela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzu eskaera honekin batera.

En caso de **OPOSICION** a la citada verificación por parte del Ayuntamiento, deberá presentar los certificados acreditativos de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social junto con esta Solicitud.

*Aurka egiteko arrazoiak*

*Motivos para la oposición:*

| **AGIRIA sinatu aurretik, irakurri DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA** | | **Antes de firmar el DOCUMENTO, debe leer la INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS** | |
|---|---|---|---|
| **Tratamenduaren xedea** | Diru- laguntzei buruzko espedienteak izapidetzea.<br>Estatistikak egitea. | **Finalidad del tratamiento** | Tramitación administrativa de expedientes de subvención. Realización de estadísticas. |
| **Tratamenduaren legitimazioa zein lege-oinarria** | Interes publikoa xede duen misioa betetzea edo arduradunari emandako botere publikoak egikaritzea, lege-maila duen arau batek emandako eskumenean oinarritutakoak: Euskadi Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.artikulua eta tokiko zein arloko araudia. | **Legitimación o base jurídica del tratamiento** | Cumplimiento de una misión realizada en interés público o ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable, por derivar de una competencia atribuida por una norma con rango de ley: artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, artículo 25 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y demás normativa local y sectorial. |

ESKU74d9eeab-cee2-4f77-adf0-f794debf93c8

Idiazabalgo
Udala

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Informazioa kontserbatzeko epea zein irizpideak** | Diru-laguntzen espedienteak izapidetzan.<br>Balioetsitako epea: 6 urte. | **Plazo o criterios de conservación de la información** | Durante las fases de tramitación de expedientes de concesión de subvención y control financiero.<br>Plazo estimado: 6 años. |
| **Profilak egiteko edo erabaki automatizatuak hartzeko asmoa** | Ez. | **Existencia de decisiones automatizadas o elaboración de perfiles** | No. |
| **Datuen lagapena** | Ararteko, Herriaren Defentsarako erakundea, eta legez aurreikusitako beste edozein lagapen. | **Cesión de datos** | Ararteko, Defensor del Pueblo, Juzgados y Tribunales y otras cesiones que estén previstas legalmente. |
| **Hirugarren herri-aldeetara datu-transferentziak** | Ez, legezko betebeharra izan ezik. | **Transferencia de datos a ter-ceros países** | No, salvo obligación legal. |
| **Eskubideak:**<br>(Mugatuta daude, ingurumeneko eta hirigintzako diziplinako prozedurak oztopa ditzaketen neurrian) | 1. Datuetan sartzeko eskatzeko eskubidea.<br>2.*Datuak zuzentzeko, ezerezteko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubideak.<br>3.*Tratamendua murriztea eskatzeko eskubidea.<br>4. Datuak eramateko eskubidea.<br>5. Kontrol agintarien aurrean erreklamazioak aurkezteko eskubidea. | **Derechos:**<br>(Están limitados en cuanto que son susceptibles de impedir el desarrollo de los procedimientos de control de disciplina medioambiental y urbanística) | 1. Derecho a solicitar el acceso a los datos.<br>2.*Derecho a solicitar la rectificación, supresión o de oposición al tratamiento.<br>3.*Derecho a solicitar la limitación de su tratamiento.<br>4. Derecho a la portabilidad de los datos.<br>5.Derecho a presentar reclamación ante las autoridades de control. |
| **Tratamenduaren arduraduna** | Idiazabalgo Udala<br>Plaza Nagusia 3, 20.213 Idiazabal<br>udala@idiazabal.eus<br>943.187.100 | **Responsable del tratamiento** | Ayuntamiento de Idiazabal<br>Plaza Nagusia 3, 20.213 Idiazabal<br>udala@idiazabal.eus<br>943.187.100 |
| **Datuak babesteko ordezkaria** | Harremanetarako datuak: udala@idiazabal.eus | **Delegado/a de protección de datos** | Datos de contacto:<br>udala@idiazabal.eus |

☐ **Baimena ematen diot Idiazabalgo Udalari** norbanakakoen datuak tratatzeko, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoari jarraituz, baita 2016/679 Erregelamenduak (EB) 2016ko apirilaren 27koak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duenak xedatutakoari ere.

☐ **Autorizo al Ayuntamiento de Idiazabal** para que proceda al tratamiento de los datos de carácter personal con arreglo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales y en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE.

Informazio gehiago nahi baduzu, (www.idiazabal.eus) egoitza elektronikoko Izarea Pertsonaleko Datuak Babesteari eta Segurtasunari buruzko Politikaren atala kontsultatu.

Para más información, consulte en el área de Política de Protección de Datos Personales y Seguridad en la sede electrónica (www.idiazabal.eus).

**SINADURA/**FIRMA:

**Data /** Fecha**:**